



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MAIATZAREN 12KO EZ OHIKO UDALBATZA

NOIZ: 2017ko maiatzaren 12an, arratsaldeko 16:15etan

NON: Ikaztegietakoko Udaletxeko Areto Nagusian

BERTARATUAK: Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Xabat Ibareguren Lazkano (EH BILDU)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

AZTERGAIAK:

1.- 2/2017 kreditu aldaketa onarpena (kreditu gehigarri motakoa).

2.- 2018 jai egun lokala deklaratzeko abuztuak 10 San Lorentzo eguna.

3.- D7 Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldaren eranskina onartzea.



- ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udalbatzak aho batez berretsi egiten du gai ordena eta gaia eztabaidatzea eta bozkatzea erabakitzen du.

1.-2/2017 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA (KREDITU GEHIGARRI MOTAKOA).

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espediente bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, ogasuneko batzorde informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, udalbatzak, bozketa egin eta gero, aho batez honako hau

ERABAKI DU



Lehenengoa.- Onartzea udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIOAK (Ile apaindegian)	6.534,00
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		6.534,00

FINANTZAKETA



Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8	FINANTZA AKTIBOAK	6.534,00
GUZTIRA		6.534,00

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

2.-2018. URTEKO HERRIKO JAI EGUNA ABUZTUAREN 10A SAN LORENTZO EGUNA IZENDATZEA.

Kontutan izanda 148/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2018. urteko jaiegunen egutegia onartzeko denak, non 12 egun zehaztu ditun jaiegun bezala eta Udal Bilkurei dagokiela herriko jaieguna zehaztea, bertaratutako zinegotziek aho batez zera erabakitzen dute:

BAKARRA: 2018. urteko herriko jai eguna abuztuaren 10a (osteguna) San Lorentzo eguna izendatzea.



3.- D7 GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO LEGEZKO ORDEZKARIEN ERROLDAREN ERANSKINA ONARTZEA

Ogasun eta Finantza Departamentuak udalek GFak dituen legezko ordezkarien erroldako datuetara sarbidea ahalbidetzeko hitzarmenaren eranskina onartu du.

Ildo horretan, martxoaren 24ko 162/2017 Foru Aginduaren bitartez legezko ordezkarien errolda arautzen zuen Foru Agindua aldatu da errolda hori Gipuzkoako udalek erabiltzeko aukera izan dezaten.

Horretarako, aipatutako Foru Aginduak, Ogasun eta Finantza Departamentuak eta Gipuzkoako lurralde historikoko udalek informazioa elkarri lagatzeko lankidetzat hitzarmenaren eranskin berri bat onartzen du, hain zuzen, D-7 eranskina “Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta” izenekoa.

Horiek horrela, udal horrek legezko ordezkarien erroldako datuak kontsultatzeko aukera izango dute.

Gaia aztertu ondoren, udalbatzak, bozketa egin eta gero, aho batez honako hau

ERABAKI DU

Lehena: Onartzea D-7 eranskina “Gipuzkoako Foru Aldundiko legezko ordezkarien erroldan jasotako datuen kontsulta” izenekoa.

Bigarrena: Ikaztegieta Udaleko Alkateari, Bakarne Otegui Jauregui, ahalmena ematea Ikaztegieta Udalaren izenean aipaturiko eranskina sinatzeko.




IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2017KO MAIATZAREN 12KO EZ OHIKO UDALBATZA

Horrenbestez, arratsaldeko 16:30 direnean, Alkateak bilkura amaitutzat eman du. Eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, akta hau egin dut alkatearen oniritziarekin.

Ikaztegietan 2017ko maiatzaren 12an

O.I.
ALKATEA,



Idazkaria,

